

Tokiko elikagai produktuen kontsumo ohidurak

Ipar Euskal Herrian



Inkestaren aurkezpenean: Peio Olhagaray (CCI), Emilie Chopin (Uztartuko misio karguduna), Maite Charritton (Uztartu, lehendakari), Pantxo Bimboire (CCI, lehendakari-orde), Nadine Gaztambide (Irulegiko Sotoko zuzendaria eta Uztartuko administralaria)

2010ean sortua da UZTARTU klusterra, Maite Charritton daukala buru. Laborantza munduko elikagaiak dauzka eremutzat, kluster edo sare hortan daudela 52 kide, bertzeak bertze departamenduko hiru ganbarak (merkatariena, ofizialeena, laborariena), Herrikoa eta EHLG bezalako egiturak, bai eta ere hazkurri mundu horri lotutako 30 bat transformadore-enpresa, milako bat lanpostu dauzkatenak. Uztarturen helburuetarik bat da proiektu batzuen garatzea, Herriko Ogia eta Herriko Haragiarekin egin duen bezala. Iragan primaderan, inkesta handi bat burutu du ere: zein dira tokiko elikagai produktuen kontsumo ohidurak Ipar Euskal Herrian? Orain arte holakorik ez zen sekula egina izan hemen gaindi. Inkesta horren berri eman dauku Uztartuk joanden asteen Baionako Merkataritza Ganbaran.

Inkestaren harat-honatak

Inkesta horren bidez, Uztartuk nahi izan du, beraz, tokiko elikagaien kontsumoa zertan den neurtu, tokiko elikagaien kontsumitzaileak nor diren ikusi, nolako erosketak egiten dituzten eta zer motibazioekin. "Tokiko elikagaia" erraten delarik, produktu hori Euskal Herrian berean edo eremu arras hurbilean egina edo eraldatua (transformatua) dela adierazten du. Inkesta hori egina izan da 2016ko maiatzetik ekainera. Inkesta egileek Ipar Euskal Herriko 12 hiri edo herriko karriketan zabiltzan jendeeri banatu dituzte galdeketa. 448 pertsonak ihardetsi dute, molde fidagarrian. Elementu hauek ere jakin behar dira, Baionako Komertzialdegiak lehenago eginiko inkesta batetik: Ipar Euskal Herrian 811 milioi euroko erosketak egiten dira urtean, elikagai alorrean, hots bana beste 5.798 euro familiara.

Elikagai erosketak egiteko jokabide orokorra

Asteroko erosketa gehienak (tokiko eta kanpoko produktuenak) super edo hipermerkatuetan egiten dira (%75,4), saltegi tradizionaletan, epizeria eta beste, %30,1, merkatuetan %25, bio-saltegietan %5,9, ekoizleeri zuzenki %8,5, Amap-etan %1,6 eta internetez %3,4. Zenbaki horiei behar

dira gehitu alor horietan erosketak noiztenka (gutierrez hilabeteen behin) egiten dituztenak. Erosleen %40ak 50 eta 100 euroren artean gastatzen du astero eta %40ak ere 100 eta 200 euroren artean. Erosketak egiterakoan, produktuaren freskotetasunari dute lehenik kasu egiten (%21), gustuari (%18) eta prezioari (%16), baina oraindik guti produktu horrek ingurumenarentzat lukeen eraginari (%4).

Tokiko elikagai produktuen erosketak

Galdezkatuen %85ak dio tokiko elikagaiak erosten dituela. Horietan heren batek gutierrez asteen behin eta bi herenak hilabeteen behin. Kontsumo hori frangotto emendatu da azken bi urte hauetan erosleen %75aren ganik. Haatik, %69ak asteen 50 euro baino gutiago gastatzen du tokiko hazkurriarentzat. 50 euro baino gehiago despenditzen dutenetan, bi herenak 40 eta 59 urte bitartekoak dira. Ekoizleeri zuzenki erositako produktuetan: arroltzeak (%31), haragia (%2), esnekia (%17), fruitu eta barazkiak (%13), arraina (%9), kontserbu eta erreximentak (%6), edariak (%4); Amap-etan, aldiz: fruitu-barazki (%30), haragi (%17), esneki (%17), arroltze (%15), arrain (%11), kontserbu-erreximenta (%4), edari (%4). Erosleen %35ak dio 10 km baino gehiago egiteko prest dela, tokiko hazkurria erosteko.

Erosketa motibazioak

Galdezkatuen gehiengo handia (%90) "bi-dezko" (*équitable*) erosketari sentsiblea da bai eta produktuen kalitatea eta nondik-nolakoari (*traçabilité*). Tokiko ekonomia nahi du sustengatu. %61ak dio, haatik, tokiko ekoizpenak besteak baino karioago direla. Zerk susta lezazkeen tokiko ekoizpen gehiagoren erostera? Prezio apalagoak (%20), saltegi gehiago eremu hurbilean (%16), ekoizlearekin harreman zuzenak (%15), saltegiatako apaletan ikuspen hobe (%13), ekoizpenen identifikatze hobe (%12). Orokorrean, iduri luke tokiko elikagai produktuen kontsumoak gora egingen duela gerora, galdezkatuen %55ak hori segurtaturik.

Laburbilduz

Tokiko elikagai produktuen kontsumoa poliki sartua da hemengo erosleen ohidurretan (galdezkatuen 10etarik 8). Produktu horiei buruzko interesa handituz doa. Hemengo kontsumitzaileek gero eta gehiago nahi dute tokiko ekonomia sustengatu, kalitateari bereziki lehentasuna emanez. Haatik produktu horien prezio "goregia" arrasta bat zaie askori.

P.J.